



*Idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*



liburua erabiltzeko
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



Leiho irekiak

Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako liburuan topatu dugu leihoak marrazten dituen neskabila. Mundua luzea eta zabala dela erakutsi digu eta leihoak pintatzen dizkigula zati txikitan ikusi ahal izateko. Bizitzaz gehiago ikasten baita kanpoan, presarik gabe bazoaz, oinak ipintzen diren lekuaz pixka bat haratago eramanez gogoia.

Leku aproposa da leihoa gogoeta egiteko, eta liburuak pentsatzeko leihoak zabaltzen dituela iruditu zaigu. Hauxe duzu gomita ikasleekin leiho bat marraztu eta handik, patxadaz, ikusten duzuenaren gainean hausnartzeko, galderek ez dutela erantzun bakarra deskubritzeko, burutapenak eta pentsamoldeak ez direla norabide bakarrekoak baieztatzeko, eta, zergatik ez, amets egiteko.

Guk ere gure burua leihoan irudikatu dugu, zuekin batera handik begira. Eta liburuak erabilera pedagogikoa izan zezakeela pentsatu dugu. Hurrengo orrialdeetan ipuinekin gogoeta egiteko hainbat ideia eta eredu aurkituko dituzue, iradokizun gisa, eskolan, aisialdian, etxean, erabiltzeko:

Alde batetik, “ipuin laburrak” genero literarioaren historia eta ezaugarriak dituzue, liburuaren gaineko azalpenekin batera.

Bestetik, autoreen aldeko argibide batzuk. Testuen autoreak eta marrazkien autoreak asmo berezi honetarako emandako informazioa, hain zuzen.

Ondoren, ipuin batzuren inguruan gogoeta egiteko Hik Hasik prestaturiko hainbat ideia eta eredu aurkituko dituzue iradokizun gisa. Adibideak dira, geure begiradak, zuek, nahi baduzue, osatu ahal izango dituzuenak, guk begiratzea hautatu dugun norabidean begiratu nahi baduzue, behintzat.

Amaitzeko, aurkibidea ere baduzue, pedagogikoa eta gaikakoa. Pedagogikoan, ipuin bakoitzean zein eduki edo balio landu daitezkeen, eta, orientabide moduan, zein adinekoentzat izan daitezkeen egokiak.

Leihotik begira jarri bazarete badakizue zenbatezinak direla handik ikus eta antzeman daitezkeen gauzak. Inork ere ezin izango du halako leihotan paratzen den jendearen begirik kaiolatu. Zabalduta leihoa eta hitz egin, hitzek zer esan nahi duten jakinda pitin bat errazagoa izango baita hitz egitea.

Liburua irakurri duzunean idazlea bihurtu zarela esan digun moduan, orain, leihoak egiten dituen zurginak bezala, leihoaren arduraduna leihotik begiratzen duena dela diosku idazleak.

Zabalik eta zabalak diren leihoak nahi ditugu. Mundua, eta bizitza, ahalik eta gehien ikusteko, geure begiz. Ahalik eta koloretsuen!

Mikroipuinak

Mikroipuina esanda, azken orduko berrikeria batez ari garela pentsa lezake norbaitek, baina, berez, hauxe izan liteke literatura modurik zaharrena. Hala imajinatzen dugu behintzat, gizakiak mintzoa bereganatu zuenetik, sutondoko bilera haietan istorio txikiak kontatuko zizkiotela elkarri, alaiak eta tristeak, misterioak argitzeko edo barre egiteko: hortik sortu dira mitoak eta pasadizoak, parabolak eta txisteak.

Mendeetan barrena ahoz aho ibiltzeari zor zaio, beharbada, idatzizko literaturan beranduago hasi izana. Esan liteke Ambrose Bierce (Ohio, 1842-1914) eta Franz Kafka (Praga, 1883-Viena, 1924) izan zirela kontakizun laburra etnografiaren katetik askatu eta berezko nortasuna eman ziotenak; lehenak umore beltzetik jo zuen, gehienbat, eta bigarrenak absurdotik. Geroztik hainbat jarraitzaile izan ditu ipuin motxen generoak, eta tradizio antzeko bat ere sortu da, batik bat Hego Amerikan eta Europako Ekialdean (Augusto Monterroso eta Slawomir Mrozek aipa ditzakegu, adibide gisa).

Euskal Herrian, berriz, herri-jakituriaren biltzaileen ondotik, Jon Mirande (Paris, 1925-1972) jo dezakegu mikroipuinaren lehenengo idazle modernotzat, *Igela* aldizkarian kaleratzen zituen izkribuak direla eta. Generoa gehien eta sakonkien landu duena, ordea, Joseba Sarrionandia dugu. 80ko hamarkadan bertan eman zion hasiera langintzari, *Ez gara gure baitakoak* (1989) bildumarekin, eta haren ondotik etorri ziren *Han izanik hona naiz* (1992) eta *Bizikletak, miopeak eta beste langabetu batzuk* (1995). Multzo honetan sar litezke, orobat, haurrentzat idatzitako *Izeba Mariasunen ipuinak* (1989) eta hiztegi gisa eraturiko *Hitzen ondoeza* (1997). Urte batzuetako isilaldiaren ondoren bueltatu da egilea mikroipuinetara, gustuko habialekura itzultzen den zikoinaren antzera.

Zer aurkituko dugu *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* honetan? Sarrera gisako lehen testu miragarri batzuen ostean, hiru parte nagusi datoz, bakoitzak 40 ipuin pasatxo dituela: “Leihoak egiten zituen neskatoa” lehena, non irudimenaren indarra den nagusi, fantasia eta surrealismo puntu batekin; “Biba zorrien izurritea” bigarrena, eskola duena gai nagusizat, eskola horrek gizarte osoaren alegoriatzat ere funtzionatzen duen arren; eta “Unibertsoaren historia eta beste istorio batzuk” azkena, halako itxura entziklopediko baten azpian gai soziologikoak ere agertzen dituena. Sailkapen beti arbitrarioen gainera, baina, ipuin bakoitza da arte-pieza txiki bat, bere kasa irakurtzen dena eta hainbat ideia pizten dizkiguna.

Liburu honetaz zerbait azpimarratu beharko banu, egilearen pentsamendu anti-dogmatikoa aipatuko nuke. Umorearen bidez egiten du hori, batetik, ironia mehe bat erabiliz, ukitu subertsibo bat ere baduena. Bestetik, paradoxa du, sarritan,

gogoetarako bidea, ezustearen aurrean buruko errota lanean ipintzeko tresna. Horrekin loturik, errealitatearen prisma eta printza berriak eskaintzen dizkigu une-oro (leihoak pintatzea ez da metafora txarra, horretarako), ikuspegi-aldaketa etengabe horrekin bestearen tokian ipintzera gonbidatzen gaituela, eta horrela enpatia landu. Horren adibide ezin ederragoa da, liburuaren sarreran, eguzki-irteerari begiratzen daudeneko testua: espresuki adierazi gabe, modu natural batez sentiarazten digu gizaki bakoitzaren partikulartsuna eta, aldi berean, gizaki guztien arteko elkartasuna.

Horrela irakurri dut nik liburua, baina orain idazlea zeu zara, irakurtzera zoazelako.

Xabier Mendiguren Elizegi

2010-05-13



Irakurleei abisua

Ederra da istorio baten lehenengo hitza idaztea lehenengo hitz horrekin, giltzarekin bezala, zer irekiko den jakin gabe. Ipuin bat asmatzea errealitatearen harresian leiho bat zabaltzea da, harginak edo zurginak egiten duen lez, ahalik eta egurrik hoberenarekin, bestaldean topatuko denaz jabetu gabe oraindik, zalantzaz, beldur apur batekin.

Badira beste plazer batzuk, baina idazteak bi atsegin behintzat ematen ditu: bizitzan bestela ia oharkabean pasatzen diren leku, memento, gertaera eta ideia batzuk atxikitzeko eta oroitzeko gogoia betetzeko; eta leku, memento, gertaera eta ideiak konpartitzeko gogoia ere asetzeko, idazten duzuna beste inork leituako duelakoan, idatzi duzun leku eta mementotik urrun agian.

Ederra da gauzak partekatzea, gauza batzuk elkarrekin baizik ezin dira garatu, eta horietakoa da idaztea. Idazketa irakurketekin osatzen eta biderkatzen da. Irakurketa bakoitza ber idazketa antzeko zerbait da. Hagatik, ez dut uste testua behin argitaratuz gero amaitutzat eman behar denik, orduantxe hasten da testu horren bizitza, animalia biologikoena jaiotzean hasten den bezala.

Irakurketa okerrak eta gehiegizko interpretazioak ohikoak diren arren, oker konprenitzeko arriskuekin ere, garrantzizkoak dira testuaren malgutasuna eta irakurlearen askatasuna. Ez dago testuaren mamia eta forma xehetasunez azaldu beharrik, leihotik begira lagun batekin paratzen zarenean ikusten den guztia esplikatu behar ez diozun bezala. Idazleak leihoa zabaltzen du, zerbait seinalatzen du behar bada, baina lagunari dagokio nahieran begiratzeko libertatea.

Orduan, datozen oharretan, testuak esplikatu ezik, erreferentzia konkretu batzuk argitu eta informazio osagarri apur bat baizik ez da emango, nahi duenarentzat:

1. *Tepui*: mendi tontor handiak dira, pemone-raz. Mendi tankera berezi batzuk izendatzeko erabiltzen da hitza: garaiak, amildegiz inguratuak, lautadak gainean.

2. Niels Bohr (1885-1962) fisikaria, atomoaren egituraren eta atomoetatik sortzen den erradioaktibitatearen ikertzailea. 1922an, Nobel saria hartu zuen. Bohrren Teorian, atomoaren egitura planeta sistemaren antzera azaltzen da, erdian nukleo positibo bat eta horren inguruan elektroik negatiboak biraka.

3. Djeha umore ipuinetako pertsonaia da Marokotik Indonesiarainoko eta Sudanetik Siberiarainoko herri musulmanetan. Izen desberdinak ematen zaizkio: *Djeha* deitzen da Aljeria aldean, *Nasrudin Hodja* deitzen da Turkia

aldean eta bestelakoak beste herrialdetan.

4. *Rara avis*: 'hegazti bitxia' esan nahi duen lokuzio latinoa da, gauza eta kasu arraroez erabiltzen da.

5. *The Beatles*en abesti ezaguna, jakina.

6. "Ekialdea eta Mendebaldea ezin izango dira ja bereizi..." Alemanez, Johann Wolfgang von Goetheren aipua da.

7. Tigrearen marren esaerari erantzuna da ipuin hau. Esaten da ez zaiola ardura tigrearri marra bat gehiago.

8. Testu hau, James Joycek 1916an argitaratu zuen *Portrait of the Artist as a Young Man* nobelako protagonistaren apunte ezagunaren kopia da. Xabiartxo, Jon Zabalo *Txiki* marrazkilaria 1925eko liburuan pintatu zuen pertsonaia

da. Ez da berezkoa bakoitza non dagoen. Dena delako lekuan egonda ere, norberak aukeratzten du non egon.

9. Hala deitzen zitzaien aspaldian ikasleen idazmahai batzuei.

10. Moebiusen Zinta: paper zerrenda batekin egin dezakezue, paperaren puntak lotuz, baina batzerakoan muturretako bat biratuz. Plano batetik bestera planoan abandonatu gabe pasa daitekeela ikusiko duzue.

11. Zenbakiak euskal tradizioan: Patziku Perurena, *Euskarak sorgindutako numeroak*, Kutxa Fundazioa, Irun, 1992.

12. Victor Morenok literatura umeei eskaintzeko saio liburu ederrak argitaratu ditu gaztelaniaz Pamiela argitaletxean: *El deseo de leer*, *El deseo de escribir*, *Va de poesía*, *Leer con los cinco sentidos*, *Diccionario de escritura*.

13. XVIII. mendetik XX.era arte euskararen aurka ohikoa izan zen metodo pedagogikoa da, *el anillo* edo 'eratzuna' deitu zen leku askotan. Iparraldean *anti-basque*, *boule basque* eta hala-ko beste izen batzuk eman zaizkio.

14. Sam Cooke *soul* musikaria izan zen. *Gospel* eragineko kantaerarekin arrakasta handia izan zuen. Aipuko bi lerroak *Wonderful World* abestikoak dira. Ez zen sasoi ona beltzentzat Estatu Batuetan. Musikan eta beste alor batzuetan arrakasta bazuten ere, hobe beltz egokiak izan eta ezjakinarena egin hainbat gairi buruz. Historiaz eta arrazaz bereziki, hala konprenitzen da lerroetako ezjakintasuna. Sam Cooke bera emakume batek hil zuen tiroz motel logela batean, Sam okerreko gelara sartu zelako.

15. Laozi -*Lao Tse* ere deitzen zaio- orain dela hogeita sei mendeko filosofo txinatarra, *Kong Fu Zi* edo *Konfuzioren* garaikidea. Laozi bufalo baten gainean ibiltzen omen zen eta taoismoa sortu zuen.

16. Heraklito Efesokoa orain bi mila eta bostehun urte bizi izan zen. Dena aldaketa dela uste zuen, ezer ez dela ezer, ez bada aldaera. Eta adimenak bakarrik antzematen dituela batasunak bilakaera etengabe.

17. Landako, Durangoko auzo bat da. Orain urbanizaturik dago, autoreak aipatzen duen sasoiari, 1970 aldean, landa eta soroak ziren. Landako bazterretik Ibaizabal ibaia pasatzen zen.

18. Harri-pauso: errekarren barruan izaten den harria da, gainean pausoa eman eta errekarren bestaldera pasatzeko modukoa.

19. Penelope, greziar mitologian, Ulisesen emaztea da, eta Telemakoren ama. Fideltasunaren sinboloa da, senarrari fidel izan omen



zitzaiolako hogeitaz, ezkongaz inguraturik Penelope eta urrun Ulises, hamar urtez gerlan eta beste hamarrez bidaian ibili baitzen. Eduardo Gil Berak egin du, euskarara, Homeroren Odisearen itzulpen ederra.

20. Prometeo eta Epimeteo greziar mitologiako pertsonaiak dira, anaiak; *Pro-meteo* gauza 'aldeaz aurretik ikusten' duena da, *Epi-meteo* gauza 'gertatu ondoren ikusten' duena. Giza zibilizazioaren sortzailea izan zen Prometeo, sua Jainkoei ostu eta gizajendeari eman ziolako. Jainkoek, mendekuz, Pandora bidali zuten mundura, eta Prometeo kateatu zuten Kaukasoko mendian, non arrano batek jango zion behin eta berriz gibela, harik eta Heraklesekin askatu zuen arte. Epimeteok, ondorioez ohartu gabe, Pandoraren kutxa zabaldu eta gaitz guztiak gizakien artera barreiatu zituen.

21. Liburu hori ez bilatu bibliotekan, liburuzaina gogaitu nahi ez baduzue.

22. Gilen Tell edo Gilermo Tell, fikziozko pertsonaia da. Friedrich von Schiller poeta erromantikoak 1804an, pneumoniaz hil orduko, ezagutzera eman zuen *Wilhelm Tell* dramaz azaltzen da. Gessler gobernadoreak tirania eta bortxa arbitrarioa pertsonifikatzen du, Enperadorearen izenean eta babesean ari delako aitzakiarekin edozein krudelkeria egiten diela men-

ditar umil eta baketsuei. Behin, bere sonbreirua bi morroik eutsia herrikkako plazan utzi zuen, handik pasatzen ziren guztiak sonbreiru hori ohoratzeko makurtu behar zirela aginduz. Gilen Tell, inguruetako baleztari hoberena, plazatik sonbreiruari men egin gabe pasatu zen eta preso hartu zuten. Gesslerrek, burlati, aske utziko duela diotso, baldin eta semearen buru gainean ipinitako sagarra jotzen badu.

23. René Descartes filosofo, matematikari eta fisikari frantsesak, beste liburu batzuen artean, Metodoaren Diskurtsoa argitaratu zuen, 1637an, filosofiaren historian oso garrantzitsua dena, pentsamendu arrazionalaren metodoa proposatzeagatik. Ebidentzia da intuizio arrazionalen eta ondorio logikoen metodoa eta, abiapuntuan, niaren kontzientzia subjektiboa ipini behar da, "*Cogito ergo sum*" ezaguna.

24. Inkisizioa XIII. mendean sortu zuen Elizak, kataro eta albitarren aurkako borrokan. Herejeak aurkitu eta zigortzeko Eliza Katolikoaren auzitegi iraunkorra izan zuen, ikerketa prozesuan tortura ere erabiltzeko baimenarekin eta errudunei zigor gogorrek ezartzeko ohiturarekin; sutan erretzea, adibidez. Espainian, Isabel eta Fernando erregina-errege katolikoek 1483an antolatutako *Inkisizio Tribunal* bereziak 1820 arte iraun zuen, disidentzia erlijiosoen eta politikoen kontra: moriskoen eta juduen kontra, herejeen eta sorginen kontra, liburu entziklopedisten trafikoen kontra ere bai.

25. Isaac de Benseradek epitafio hau egin zion Richelieu Kardinalari: "*Ci git un fameux Cardinal/ Qui fit plus de mal que de bien./ Le bien qu'il fit, il le fit mal./ Le mal qu'il fit, il le fit bien.*" Richelieu Kardinala, Armand Jean de Plessis (1585-1642), Elizako prelatua izateaz gainera Errege Kontseiluko kidea izan zen Louis XIII.aren erregealdian. Luzaroan gobernatu zuen Frantzia politika, ekonomia, armada eta kulturaren alorretan.

26. Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791), musikagile austriarra, oso goiz hasi omen zen aparteko musika asmatzen. Baina bere bizitza laburreko azkenengo bost urteetan egin zituen pianorako sonata, sinfonia eta opera ederrenak: azkeneko hiru sinfoniak, eta 'Figaroren Ezteiak',

Don Giovanni, *Così fan tutte* eta 'Txirula Magikoa'.

27. Immanuel Kant (1724-1804) alemaniar filosofoaren ustez, esperientziako gertaerak arrazoiari esker konprenitzen dira.

28. Ilustrazioa: XVIII. mendean zehar Europan arrazoimenaren eta aurrerapenaren alde bilakatu zen filosofia eta kultura mugimendua. Voltaire, Rousseau eta gainerako entziklopedisten haritik zabaldu ziren Euskal Herrian ere Azkoitiko Zalduntxoak. Gizabanakoaren askatasuna teorikoki balio nagusitzat laudatzen zuten arren, ez zuten beltzen esklabotzaren kontra egin, jabeen askatasuna ez urratzeko.

29. H. G. Wellsen *The Country of the Blind* edo 'Itsuen herria' narrazioaren laburpena da testua. Herbert George Wells (1866-1946) zientzia-fantasia nobelak idatzi zituen, ezagunenak: *The Time Machine* edo 'Denbora makina', *The Invisible Man* edo 'Gizon ikusezina', *The War of the Worlds* edo 'Munduen arteko gerla' eta *The Shape of Things to Come* edo 'Helduko diren gauzen tankera'.

30. Albert Einstein (1879-1955), alemaniar jatorriko fisikari teorikoa. Fisikaren bilakaera irauli zuen, espazioaren eta denboraren ideiak emendatuz eta energia atomikoa erabiltzeko oinarri teorikoa finkatuz. 1921eko Nobel saria jaso zuen efektu fotoelektrikoei buruzko azalpenagatik. Alor bat da zientzia eta bestea teknologia, jakina: Albert Einsteinek ez zuen lehergailu atomikoa ez asmatu ez fabrikatu.

31. Kunak Panamako sortaldeko itsasertzean bizi dira, irlatan asko. *Kuna Yala* deitzen zaio kuna etniaren lurraldea. El Porvenir da hiriburua.

32. *Kadi*, 'juje' edo 'juez' da arabieraz.

33. Bil Baird (1904-1987) txotxongilo tailer batean aritu zen lanean New Yorken eta ikuskizunak eman zituen mundu guztian. 1965ean argitaratu zuen liburua *The Art of the Puppet* deitzen da ingelesez. 1971ko saio horretaz kontatutakoa benetakoa da, jakina.

34. Sierra Leonako hiriburua da Freetown, Ozeano Atlantikoaren ertzean. 1787an fundatu zuten, abolizionistek, Ingalaterrako esklabo ohientzat.

Espero dut irakurketa gozagarria izango zaizula. Hainbeste oinaze eta hainbeste umilazio ikusten diren mundu honetan, batak besteari hainbeste min eragiten diola, atsegin apur bat eman ahal izatea ederra litzateke.

Joseba Sarrionandia

Ikusleei abisua

‘Koadro bat ikusten dudanean’, idatzi zuen André Bretonek, ‘leioa dela pentsatu eta kanpoan zer ikusten den jakin nahi izaten dut...’

Jakin-min hori piztea da, idazleena bezala, pintoreen xedea. Koadroak, leioen modukoak egitea. Ikusleak begira dezan hortik zehar.

Datozen oharretan, gure marrazkiekin batera erabili ditugun irudi batzuk aipatuko ditugu:

39. orrialdeko irudiak, japonierazko hitzak honela leitzen dira: *Watashi to deeto shi masen ka?*. Hau da: ‘Nahi duzu elkarrekin ateratzea?’

66. eta 68. orrialdeetako irudiak, hurrenez hurren, Xabierto eta Itziar dira. Liburu honetatik hartu dira: *Txiki*, Jon Zabalo Ballarin, Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia, 2003.

92. orrialdeko burugabeak Gustave Dorék marraztuak dira, *Aventures du Baron de Münchhausen*, Théophile Gautier-ek prestatuturiko edizioan. Paris, 1862.


149. orrialdeko grabatua Leopoldo Mendezena da.

40. orrialdeko marrazkia Beñat izeneko mutiko batena da, 54. orrialdekoa Joanerena eta 64., 73. eta 123. orrialdekoak Izarorenak dira.

Gainerakoan, idazle zaren bezala, pintore ere zeu zara.

Lierni Altube





Iradokizun didaktikoak

Liburuan aurkituko duzun ipuin bakoitzak, egilearen imajinazio handia lagun, zure irudimena piztuko du, zugar irudi eta sentsazio bereziak eraginez.

Balio poetiko handiko narrazio horien bidez, aurkezten diren egoerak interpretatzera eta, horrekin, berreraikitza bultzatuko zaitu idazleak. Goatzera eta fantasiaren munduan bidaiatzera gonbidatzen zaitu, beste behin, J. Sarrionandiak metaforaz jantzitako bere prosaren bidez. Umorea bidelagun, errealitatea eta absurdoaren arteko mugak lauso, ipuin bakoitzean, ezusteko gertaeraren edota egoeraren eraginak liluratuta, harrituta utziko zaitu: pentsaraztera bultzatuko zaitu.

Inplikazioz beteriko ipuin labur horiek irakurtzean, ziurrenik, irakurle guztien interpretazioak ez dira berdinak izango. Narrazioak har ditzakeen askotariko zentzu horrek, izakera anbiguo horrek, irakurle bakoitza bere interpretazioa egiteko atakan jarriko du eta hori guztia aberastasun iturri bilakatuko da.

Esan bezala, ipuinak, prisma bat bailitzan, hainbat aurpegi eskaintzen dizkigu eta banakakoak aurpegi ezberdinekiko hartzen duen ikuspuntuaren baitan egingo du bere interpretazioa. Beraz, irakurle adina ikusmolde eta iritzi sor daitezke. Horiek partekatzeke egoerak suertatuz gero, berehala sortuko dira eztabaidatzeko, bestea entzuteke, arrazoitzeko eta ideiak defendatzeko aukerak. Horra hor, beraz, pentsamendu autonomoa, dibergentea eta kritikoa lantzeko ezinbesteko osagaiak.

Eta horixe da, hain zuzen ere, datozen lerrootan garatu dugun iradokizunen xedea.

Ipuinen lanketak hainbat konpetentzia orokor eta espezifiko lantzeko balio badu ere, *Elkarrekin bizitzen ikasi*, *Komunikatzen ikasi*, *Pentsatzen ikasi* eta, batez ere, *Norbera izaten ikasi* konpetentziak garatzen laguntzeko oso baliagarriak izan daitezke.

Ipuinak adin jakin batera zuzenduta ez badaude ere, iradokizun gisa, adinka sailkatutako proposamena egitera ausartu gara, inori baliagarri suerta dakiokelakoan.

Baina, batez ere, narrazio bakoitzak eskaintzen dizkizun une majiko horiek goza ditzazula da gure nahia!

Ipuin batzuekiko iradokizunak

Haur txikiekin aritzeko

LEIHOAK (16. or.)

Hezitzaileak irakurriko du ipuina.

Irakurri aurretik:

Aldeko giroa sortzea komeni da. Taldean landu behar bada, ahal dela gozo.

Biribilean eserita jar gintezke.

Girotzeko, halakoak esan genitzake:

- Ikusten ditugun gauzez (atea, etxea, mendia, txakurra...) bakarrik pentsatzen dugu, ala, pentsamendu bitxiak ere izaten ditugu?

- Zer ikusten duzu zure leihotik?

- Egoten al zara leihotik begira?

- Bada, irakurri behar dudan LEIHOAK deritzan ipuinak leiho bitxiak ditu. Erne! Ea zer gertatzen den. Horretaz hitz egin dugu, gero.

Irakurri ostein:

- Isiltasun unetxo bat gorde, haur guztiak begiradarekin erakartzen saiatu.

Galderak harik eta era irekienean egitea komeni da. Interesa duten hartan arreta jarritz, denen partehartzea eta denek hitz egin dezaten erraztuz.

- Gustatu al zaizue? Polita irudi al zaizue? Zer izan duzue gustuko? Zer gehiago? Eta zuk, (Olaia) zerbait gehiago esan nahi duzu?

- Zer esaten da bertan? (Txikienei galdera hori zuzenean egin beharrean, edukia berreskuratuko dugu zer gustatu zaien gehiena galdetuz.)

- Hainbat interpretazio desberdin ager litezke, kontrajarriak, agian. Hori ona litzateke. Horrela, bakoitzaren interpretazioa arrazoitzea eskatuko genuke.

- Amama agertzen da... Ikusten duenaz hitz egiten du... Begien garrantziaz hausnartzen du... Kanpokoaz eta barrukoaz ari da...

- Itxi begiak, ea zer ikusten duzuen. Bakoitzak bere irudimenezko leihotik ikusten duena adieraz dezake.

Zertarako balio dezake: leiho mota desberdinez aritzeko, munduarekiko arreta lantzeko; sormena eta irudimena sustatzeko...

Zer gehiago egin daiteke: antzeztu, nor-

berak marrazkiaren bidez ipuina adierazi eta abar. *Amamaren leihoa* ipuina (21. or.) irakur genezake. Edo, *Barruak* 11. orrialdekoa, ipuinen arteko erlazioa aztertuz.

Berriro irakurri: saioa amaitzean, edo beste egun batean, ipuina berriro irakur liteke, besteei entzundakoarekin interpretazio osatuagoa egiteko aukera eskainiko baitiegu.

Ipuina sor genezake: ni hasiko naiz esaldi bat esanez, gero beste batek beste bat, eta horrela jarraituko dugu denen artean ipuina osatu arte.

KATUA (57. or.)

Helduago batek irakurriko du ipuina (irakasleak, ikasle helduago batek, etxeko norbaitek, esaterako).

Irakurri aurretik:

Ipuina entzuteko irrika sortuko dugu. Taldean landuko bada, biribilean eserita jar gintezke.

Girotzeko, halakoak esan genitzake:

- Ba al duzue animalia bat etxean? Bai? Zer animalia mota?

- Nola moldatzen zarete beraiekin? Lan handia ematen al dute? Janaria eman, garbitu, kanporako bidaiara joatean zer egiten duten beraiekin eta beste galdetu dezakegu.

- Orain, KATUA izeneko ipuin laburra irakurriko dizuet. Adi! Ea ipuineko pertsonaiak nola konpontzen diren haien artean, ados?

Irakurri ostein:

Haurrek esaten dutenetik abia gintezke. Bestela, galdera modu irekian egin genezake. Dena den, ipuinak besteekiko harremanen gaiaren ildoak ere jorratzea ahalbidetuko digu.

- Zergatik esaten dio hori katuak?

- Ipuinean, haurrak laztanaren bidez adierazi dio maitasuna katuari. Harek, buztana altxatuz erantzun dio. Beste animaliek nola erantzungo luketela uste duzu?

- Zein animalia gustatzen zaizu gehien eta zein gutxien? Zergatia arrazoitu.

- Bestalde, ipuinak beste hainbat aukera eskaintzen ditu: deskribapena, katua deskribatzen du; adierazmena, laztanaren mugimendua adierazten du; harremanak, katua eta pertsonaren arteko harremanaz ari da; mugak, harremanean daudenen arteko mugak azaltzen ditu.

- Beste bide bat ere har daiteke, halakoak esanez: Aizue! Filmetatik at, ikusi al duzue inoiz hitz egiten duen katurik? Katuak diona ez al da zentzugabea eta komikoa?

Zertarako balio dezake: animalien eta pertsonen arteko harremanaz hitz egiteko; zaindu, janaria eman, garbitu eta hori guztia arduraz eta errespetu handiz nola egin aztertze; mugak non egon litezkeen hausnartzeko.

Zer gehiago egin daiteke: norbera, gehien gustatzen zaion animaliekin marraztu.

Katua ipuinarekin kontrastea bilatzeko, *Antzarabidea* (51. or.) edo *Animalien aldeko ekintzak* (47. or.) irakur litezke.

Ipuinak ekoiztu: esan animalia bat, toki bat, eta gertaera edo ekintza bat. Elementu horiekin ipuina osatzen hasiko gara.

Haur Txikiekin lantzeko proposatzen ditugun ipuinak:

Ipuina 5, Idazlea 10, Barruak 11,

Uhinaren historia 15, Leihoak 16,

Eskuko hatzak 18,

Denaberdearen misterioa 20,

Aitaitaren zigarroak 22, Semaforoa 25,

Ostadarra 33, Oreinaren ibesa 35,

Amodio barremanak 46, Telefonoa 52,

Parerik gabea 54, Katua 57,

Karamelua 63, Onak eta gaiztoak 77,

Anatomia 90, Bide argitsua 101,

Ikusten dena eta ez dena 154,

Umore ona ala txarra 160, Botilak 164,

Txokolate tanta ezpain ertzean 165.

Lehen Hezkuntzakoekin aritzeko

SEMAFOROA (25. or.)

Norberak irakur dezake, eta, ondoren, denon artean.

Irakurri aurretik:

Helduak galde dezake:

- Etxetik hona etortzeko, ikusten duzue edo gurutzatzen al duzue semafororik?

- Zein da semaforoen egitekoa?

Irakurri ostean:

Ipuinaren zentzuaz edo zentzugabeke-riaz hitz egin genezake. Interesa duten detailtan jarrito dugu arreta, aurkezten dituzten iritzien gainean arrazoitzea eskatuz, eta denek hitz egin dezaten erraztuz.

- Zer egiten dugu semaforoa edo ostadarrak ikustean?

* Ostadarra ikusten badut, gelditu eta bera begira geratzen naiz.

* Semaforoa eta ostadarra bi gauza desberdinak dira. Bat naturak sortzen du, eta bestea, berriz, pertsonak.

* Zorte ona dudala pentsatzen dut eta aurrera jarraitzen dut kantari.

* Egun horretan zerbait polita gertatuko zaidala sentitzen dut.

* Ostadarraren edo "Erromako zubiaren" gainetik ibiltzeko gogoia izaten

dut.

* Semaforoa keinuka hitz egiten digun begia dela iruditzen zait.

Zertarako balio dezake: azken ideia erabiliz, semaforoaren egitekoaz hitz egin daiteke, arauak, ostadarraren egitekoaz, absurdoaz, egitekoaren alderaketaz eta beste.

Zer gehiago egin daiteke: gertaera erreal eta horrekin kontrastea izan dezakeen galdera irrealak egitea (semaforoa-ostadarra), adibidez.

Ostadarra ipuina (33. or.) irakur daiteke eta beste ikuspegi batzuk landu.

AURPEGIAK (91. or.)

Norberak irakur lezake, ondoren, ikasle batek edo hezitzaileak.

Irakurri aurretik:

Hezitzaileak galde dezake:

- Ba al duzue ohiturarik kaleko ispilu edo dendetako kristaletan zuen burua begiratzeko?

- Ikusten al duzue jendea hori bera egiten?

Irakurri ostean:

Ispiluaren ideia interesgarria suerta liteke.

- Norberak bestearen aurpegian berea ikusten du. Inoiz sentitu al zara besteen ispilu? Edo, besteek egiten dutena egiteko beharra sentitu al duzu?

* Niri gertatu izan zait, norbait hazka egiten aritzea eta niri ere hazka egiteko gogoia etortzea.

* Lagunek modu batera janztea eta nik ere horrela janzteko beharra sentitzea.

* Kanean, adibidez, nire aurretik doana kristalean bere burua begiratzea eta nik ere gauza bera egitea.

* Ispiluaren jokoa egin. Batek egiten

duena besteak islatu egin behar du. Binaka jarrita, aurrez aurre.

* Binaka: bestearen ispilua naiz. Lagunarengan ikusten ditudan gauza onak adieraziko dizkiot. Bera, ondoren, niri buruz ere gauza onak eta abar.

* Biribilean: ezkerrekoaren onak, adibidez.

Zertarako balio dezake: pertsonen arteko eraginaz hitz egiteko; besteek gudan, eta guk besteengan dugun elkarreraginaren gainean hausnartzeko.

Zer gehiago egin daiteke: nork bere burua ispiluan ikustea eta marrazkia egitea (autorretratu), esaterako.

Norberak nolako den idatz dezake eta gelako beste norbaiti eman, besteen aurrean ozen irakurri, familiako norbaiti eman eta abar.

Haur Txikiekin lantzeko proposatzen ditugun ipuinak erabiltzeaz gain, aproposak izan litezke ondorengoak:

Zinema 6, *Sortaldea* 7,

Liburua egiteko enkargua 8,

Galdera 9, *Familia erlazioak* 19,

Amamaren leiboa 21,

Ona egin beharraz 23,

Naturalak eta artifizialak 26,

Eguberriak 27, *Geografia* 29,

Gaueko jendea 30,

Txalupak eremuan 32, *Sekretua* 39,

Rara avis 40, *Bikiak* 41,

Lagun desberdinak 42,

Sorgin afaria 43,

Animalien aldeko ekintzak 47,

Mila bizitza 48, *Barea* 49,

Zebraren marrak 50,


Antzarabidea 51, *Eskalea* 53,

Jokoaren imitazioa 55,

Zoriontsua 56, *Betaurrekoak* 61,

Efeak 62, *Sorlekua* 64,

Puntu biren arteko distantzia 65,
 Erretratua 66, Zuzen 68, Eskola 69,
 Mamua 70, Baloia 71, Irakurtzea 72,
 Oinizkribuak 73, Arazoa 74,
 Bataila planoak 75,
 Idazketa ariketa 76,
 Zorri izurritea 78, Legeak 80,
 Hutsetik bamaikara 82,
 Beste kontu batzuk 84,
 Zenbakien simetria 86, Euliak 87,
 A eta B arteko eztabaidak 89,
 Aurpegiak 91, Oinak lurrean 93,
 Txiki handia 94, Erortzeaz 95,
 Golak 98, Reykjavik 102,
 Hizkuntza 106,
 Inperioak eta beste gauzak 107,
 Zorriak 108, Top secret 110,
 Laguntza eske 112, Sinonimoak 115,
 Barkatu 116,
 Gauzaezak, zintzoak, trebeak... 137,
 Heldutasuna 138,
 Ilustrazioaren filosofia 140,
 Itsuen erregearen istorioa 141,
 Organismoak 145, Politika 147,
 Arazoaren zailtasunaz 150,
 Arrazoiak 151, Bonbilla 153,
 Freetowngo semaforoa 158,
 Konfidentzia 163,
 Itsusiak eta ederrak 168.



Bigarren Hezkuntzakoekin edo helduekin aritzeko

Liburuko edozein ipuin da baliagarri.

BIKIAK (41. or.)

Hausnarketa girotzeko asmoz:

Gaurko saioan, pertsonen arteko harremanak izango ditugu hizpide. Zehazkiago esanda, bikoteak, beraien arteko erlazioak, adostasunak, lehentasunak, balioak eta abar.

- Izan al duzue inoiz bikote harremanik?
- Nolakoak izan dira?
- Ezagutzen al duzue gertutik zuena ez den halako harremanik? Zuen gurasoena, lagunena, bizilagunena, adibidez.
- Ikasle batek ozen irakur lezake edo bakoitzak bere golkorako, liburutik irakurtzeko denbora emanez.

Irakurri edo entzun ondoren:

- Ondorengoak esanez proboka daiteke eztabaida. Beste aukera bat, hainbat ikasleri esaldi bana idatzita eman eta haren defentsa egin dezaten eskatzea litzateke:

* Zer lotsagabe den neska hori, ezta? Biekin dabil!

* Lotsagabeak mutilak dira! Beraiek engainatzen dute neska.

* Ez, ez, berak badaki bi direla.

* Bietaz maitemindu da, agian, eta ez zaio asko axola nor den nor.

* Je! Aitzakia ederra da bi anaiekin ibiltzeko, jakingo ez balu bezala eginez.

- Binaka hitz egin daiteke ideiak ordenatzeko, eta, ondoren, denok elkarrekin, denon ideiak entzun ditzakegu.

Zertarako balio dezake: bikote harremanak aztertzeko, zalantzak agertzeko, nor-tasuna finkatzen joateko eta abar.

Zer gehiago egin daiteke: eztabaidatu ondoren, nork bere iritzi kritikoa idatz lezake, edo nork bere bikote harreman ideala nolakoa irudikatzen duen.

Beste aukera bat, gelan bikiak baleude, biki izatea nola bizi duten adieraztea litzateke. Sarritan, baten izena ematen zaio besteari, izenak nahasteaz gain izaerak eta nortasunak nahastea litzateke. Era berean, gainerakoek azal dezakete bikiekiko haien harremana nolakoa den: erraza, konplexua eta abar.

Maitasunaren gaineko beste ipuin batzuk irakur litezke: *Udako gauzak* (36. or.), *Amodio harremanak* (46. or.), *Rara avis* (40. or.) eta *Eta Penelope?* (126. or.).

TOP SECRET (99. or.)

Hausnarketa girotzeko asmoz:

Zuek ba al dituzue sekretuak? Zer motatako sekretuak dira horiek? Gaurkoan TOP SECRET deritzan idatzia aztertuko dugu:

- Sekretuak mantentzeko gezurretan aritzea bidezkoa al da?
- Une honetan, ba al duzue lagun batekin partekatzen duzuen sekreturik?
- Gorde al diozu inori inoiz sekreturik? Jakin edo zabaldu al zen?
- Halakoetan zer sentitzen da?
- Ikasle batek ozen irakur lezake edo idatzia denei banatu eta irakurtzeko denbora eman.
- Zer uste duzu esan nahi duela esaera zahar honek?: “Bati esaten zaiona hamaikak jakiten du”.

Irakurri edo entzun ondoren:

- Halakoak esanez proboka liteke eztabaida:

* Zer egingo zenukete halako zerbait deskubrituko bazenute?

- Bada, ni, isildu! Kar-kar-kar...

• Ni ere bai.

• Halako egi handiak jakitea arazo bihurtzen da.

- Beste bide bat ere har liteke, zuzentasunarena edo zentzugabekeriarena:

* Zentzugabea da, mundua biribila baita eta ez laua. Nola gorde, bada, halako gezurra?

Zertarako balio dezake: “egia jakinak”, sekretuak, konplizitatea eta abar aztertzeko.

Adibidez: ezagutzen duten egia jakin garrantzitsuena idazteko eska diezaiokegu bakoitzari. Ondoren, denak bildu eta “gelako egia jakinen zerrenda” osa dezakegu.

Gero alderatu dezakegu zenbatak bat egiten duten egia jakin garrantzitsuena adierazterakoan, denek ados ote dauden egia guztiekin eta abar.

Zer gehiago egin liteke: nork bere iritzi kritikoa idaztea. Mundua hobetzeko asmoz, norberak gaur egungo bizitzatik zer aldatuko lukeen, edo zer nahiko lukeen egia bihurtzea, idaztea. Nork bere “sekretoa” asma lezake eta besteei aurkeztu eta abar. Edo, irudimena lantzeko, “Gezurra” asma liteke eta besteei zabalduz, “Egia jakina” bihurtu. *Sekretua* ipuina (39. or.) ere irakur liteke, bi ipuin horien artean lotura eginez.



Aurkibide pedagogikoa

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Aberatsak eta pobreak Adikzioak	22	53	
Adinak Adiskidetasuna Aditua		139 8	161
Adostasuna Adulterioa Afektua	90		81 148
Agintea Akatsak Albert Einstein		71 168 143	
Aldakortasuna Alferkeria Amama	160	76	21, 34
Amodioa Anatomia Animaliak	90	36 47	
Aniztasuna Anti-basque Anton Txejov	20	104	171
Antzara Antzinako Grezia Apunteak		51 159	127
Arauk Arazoak Ardura	25	80 65 78	
Argudioak Arrazak Arrazionalizazioa		89 158 140	
Arrazismoa Arrazoiak Artea		28 89, 151 156	
Askatasuna Asmaketak Aukerak	22	106	128
Aurpegiak ispilu Ausartak		91 126	
Azalpenen egokiera Azterketak		64	97

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Babesa Baikortasuna eta ezkortasuna		47 94	56
Bainak Bakardadea Balizkoa	164 54		134, 162 96
Barea Baretasuna Barruak		49 49 11	
Basamortua Beharrak eta nekeak		32 9	
Beldurrak Beltzak Bestearen beharra	54	70 53	40
Besteekiko harremana Besteen gauzak	57 18		
Besteen ikuspegia		57, 166	91, 132, 166
Betaurrekoak Bide argitsuak Bizitza	101	61 48	38
Bizitza eta heriotza			161
Bizitzaren edertasuna Bizitzeko gogoa		21 95	
Borrokak Burla Burua		126 95 92	
Debekua Denbora Disimulua	35	151 49, 153 78	125
Diskrezioa Djhea		9, 107, 151	124
Egia jakinak			110

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Egiten diren gauzen nahigabeko Ondorioak		143	
Eguberriak Egun berria Egun ona	165	27 7	
Egungentia Elkartasuna Emakumeak	54	7 150 126	
Erabakiak Erabakimena Eratzuna		43 104	128
Erlatibotasuna Erortzea Erosi beharra		94, 145 95 154	
Errealitatea eta fantasia		6	
Errealitatearen zentzua	101	19, 32, 33, 93, 112, 166	56, 96, 99, 132, 152
Errebeldia Errepasoa Eskaleak		116 155	114
Eskea Esklabotza		53 140	
Eskola	80	61, 69, 78, 102, 112, 116	
Eskolara bidea Eskua Estoizismoa	18	65, 68	81
Etorkizuna Euliak Euskara	160	87 104, 106	34, 38
Ezjakintasuna Ezkerra Ezkontza		74 23	124
Eztabaidak		19, 89, 151	
F letra Familia	62		103

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Familia harremanak Fantasiaren zentzua	18	19	96, 99
Fisika nuklearra Forma eta mamia		143, 146 156	
Freetown Galderak Galtzaileak		158 64 98	
Gaua Gauzak ikusten ikastea		11, 30 107	
Gaztetasuna Gehitzea Gerrak	68	84 28, 55, 156	103
Gezurak Gilen edo Gillermo Tell		64	128
Giza harremanak Gizabidea	46	42 51, 168	132, 166
Gizakia Goitibehera Golak	15	98	162
Gorputza Gosea Gurasoak	90	43	97
Haizea Harremanak Harria	62		35 169
Hegalak Heraklito			40 125
Heriotza		55, 49	
Heziketa Hipotesi fantastikoa		138	99
Hirugarren mundua Historia		158 121	127
Hitz egitea Hizkuntza		8 115, 121, 150 168	114
Hobetzea			

HIIZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Hodeiertza Hondakingintza Hurbiltasuna eta urruntasuna	46	44	127
Ibaia Ibaizabal Idatzi eta irakurri		73, 75	125 125
Idazketa Idaztea eta irakurtzea	10	76	
Ikasketak Ikastea Ikasteko gauzak		112 9, 69	97
Ikusmoldeak Ikuspegia Ilargia	20	29, 108	152
Iluntzea Ilusioa Immanuel Kant		21 32 139	
Immigrazioa Indianoa Inkiszioa		53 140	118
Inkomunikazioa Inperioak Ipuinak		150 107 27, 48	
Ipuingintza Irakurtzea Istripuak		61, 72 25	171
Itsasoa Itsutasuna Izaera	15 160	32 141 50	
Jabegoa Jaikitzea Jaiotza		71 95 64	
Jakintza Jatekoak Jendea		43 7	124
Joko arauak Jokoak Kaligrafia	62	71 55 73, 75	
Karameloa Kartzela Kilkerra	63	153 6	

HIIZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Koadrila Koldarrak Kolonialismoa		36 109 158	
Koloreak Komunikazioa Konfidentziak	20	19 39	39
Konplizitatea Kontsumismoa Kristalak	164	154	110
Krudeltasuna Kultura aniztasuna		47 42	
Kutxa Legeak Leioa	11, 16	80 15, 21, 26, 44	34
Lekuak Maisua Maitasuna		66	92 45
Mamuak Marrak Matematika		70 50 86, 88	
Mendekua Menderatzea Mina	153	102 141	148 38
Mintzaldiak Mirakuluak Misoginia		159 24	148
Mugak Mundua Munduarekiko arreta	57 16	66	69
Nahi gabeko ondorioak Naturala eta artifiziala	164	26	
Negarra Neils Bohr Nolakotasuna		146 168	38
Nongoak garen Norgehiagokeria Nortasuna		66 71 70, 92	41
Ofizioa Oinak lurrean	63	93	

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Oinizkribuak Okerreko bideak Ona	23	73 65	
Onak eta gaiztoak Oraina	77 35		
Oreina Oroimena Ostadarra	35		132 134
Paradoxa Parte hartzea Pelikanoa		72	114 169
Penelope Pentsamendua Pobreak eta aberatsak		126 92 155	128, 130
Poliedroa Portua Poza	165		134 169
Presa Rene Descartes Santuak		49 24	130
Sekretuak Sektarismoa Sentimendua		36, 39 150	45, 110 130
Sexua Simetriak Sinonimoak		86 115	40
Sintesia Solaskak Sorginak		76 52 30, 43	135
Sormena Taldeak Telefonoa	16	98 52	
Tormentuak Trafiko legeak Transferentzia	25		135 148
Txakurra Txikiak Txikitasuna		102 163 94, 163	
Txokolatea Txotxongiloak Uda Uhina	165	36 15	152

HITZ GILTZA	HHtik aurrera	LHtik aurrera	BHtik aurrera
Ulises Ume esaerak Ume jolasak	77	126 154	
Umeen heldutasuna Umiltasuna		138 29	124
Umorea Uneak Unibertsoa	25, 160 35		145 162
Ur-pistolak Ustekabeak Western filmak		146 146	34
Wolfgang Amadeus Mozart		138	
Xakea Zahartzaroa Zalantza	25	28	103, 161 41
Zebra Zehaztasuna Zenbaketak	87	50	81
Zenbakiak Zerbait egiteko arrazoia		84, 86 106	
Zigorra Zikoin beltza Zinema		104 139 6	
Zintzotasuna Zoriona Zoritxarra		23	38, 56 56
Zorriak		78, 108, 163	
Zuzentasuna		65, 68	

